

Liburu bat naiz, irakur nazazu.

Vagelis Iliopoulos

Itzulpena: Iñaki Mendiguren

Ni liburu bat naiz.
Zu liburu bat zara.
Gu denok gara liburuak.

Nire arima da kontatzen dudana istorioa
eta liburu bakoitzak du berea.

Oso ezberdinak izan gaitezke:
handiak daude, txikiak,
koloretsuak daude, beste batzuk zuri-beltzean,
badira oso meheak, eta badira lodi-lodiak.

Antzeko gauzak edo oso ezberdinak kontatzen ditugu:
horretan datza gure edertasuna.
Zer aspergarria denok berdinak bagina!

Guñako bakoitza bakarra da.
Eta bakoitzak merezi du errespetua,
aurreiritzirik gabe irakurria izatea,
zure liburutegian bere lekua izatea.

Nitaz zeure iritzia izan dezakezu,
irakurtzen duzuna zalantzan jarri edo komentatu.
Liburutegira itzuliko nauzu agian,
edo beharbada estu hartu eta elkarrekin bidaia luzea egin.

Baina inork ez nazala inoiz bota,
ezta beste apal batera bidali ere.
Ez eskatu inoiz ni suntsitzeko, eta ez utzi beste inork suntsi nagan.

Eta inoiz liburu bat beste apal batetik etortzen bada,
norbaitek edo zerbaitek handik bota duelako,
egiozu leku.
Egoki sartzen da zure ondoan.

Saiatu sentitzen hark sentitzen duena,
ulertu ezazu, eta babestu.
Agian zu egongo zara bihar haren egoeran.

Zu ere liburu bat zarela.
Gu denok gara liburuak.

Tira, esan ozen-ozen ondo entzun diezazuten:

Liburu bat naiz, irakur nazazu

Liburu bat naiz, irakur nazazu

Munduko haurrei mezua

2023KO HAUR LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Son un libro, leme.
Soc un llibre, llegeix-me!
Soy un libro, léeme.
Je suis un livre, lis-moi.
میں ایک کتاب ہوں۔ مجھے پڑھو۔
أنا كتاب إقراني
Sono un libro, leggimi.
Είμαι ένα βιβλίο, διάβασέ με.
我是书，等你读

Ilustrazioa: Photini Stephanidi



Photini Stephanidi Grezian jaio zen 1962an, eta artista eta ilustratzailea da. 1986an, pintura eta fresko-artearen ikasketak osatu zituen Atenasko Arte Ederren Eskolan, Yannis Moralis eta Dimitris Mitaras artista ospetsuen ikasle izan zelarik.

1988az geroztik, bakarkako hogeitak erakusketatan erakutsi du bere obra, eta Grezian eta atzerrian egindako pintura, grabatu eta ilustrazioko talde-erakusketa ugaritan parte hartu du.

Bere ilustrazioak ehundik gora argitalpenen parte dira, greziar ipuin herrikoien edizioak, literatura eta poesia barne, eta bildumagile-edizioak sortzen espezialista bihurtu da. Gainera, hamar libururen egilea da.

Bere ilustrazio eta grabatuei emandako sari eta aintzatespenen artean, nabarmentze-koak dira Bratislavako Ilustrazio Biurtekoaren Plaka (2001), Greziako Ilustrazioko Estatu Saria (2003, 2007 eta 2011), Urrezko Luma Belgradeko Ilustratzaileen Biurtekoan (2005 eta 2013), Plaque (2010), IBBYren Greziako Sailak ematen duen ilustratzaileentzako saria (1995, 2005, 2011 eta 2018), baita ere EBGE Saria eta aipamen bat 2007an eta 2013an.

IBBYren Greziako Sailak Hans Christian Andersen Sarirako eta Astrid Lindgren Memorial Award-erako (ALMA) hautatu zuen Stephanidi. Duela gutxi, IBBYren Greziar Sailaren Gazte Literaturako saria jaso du (2021).



Vagelis Iliopoulos Atenasen jaio zen, Grezian, 1964an. Pedagogia- eta teologia-ikasketak egin zituen Atenasko Unibertsitate Nazional eta Kapodistriakoan, eta gaur egun hiriko lehen hezkuntzako ikastetxe pribatu ospetsuenetako bat zuzentzen du.

1995ean idatzi zuen haurrentzako lehen liburua, eta 1997an argitaratu zuen *O Trigonopsaroulis (Arrain triangelu txikia)*. Tolerantzia eta elkar ulertzeaz hitz egiten duen arraintxo hori gaur egungo Greziako heroi literario handiena bihurtu da. Ordu-tik, Vagelisek liburu ugari idatzi ditu haur eta gazteentzat. Horietako asko hainbat herrialdetan itzuli eta argitaratu dira, eta IBBYren Greziar Sailaren Saria eta Greziako Haur Literaturako Estatu Saria jaso ditu. Antzerki-lanak eta zinema-gidoiak ere idatzi ditu, eta haur-literatura itzultzen du.

Bere liburuak IBBYren Ohorezko Zerrendarako, Behar Bereziak dituzten Umeentzako IBBYren Liburu nabarmenduetarako eta International Youth Libraryren «White Raven» katalogorako hautatuak izan dira. Nazioarteko literatura-jaialdi eta liburu-azoketan parte hartu du Vagelisek, besteak beste, Berlingo Literatura Jaialdian, Zipreko Liburu Jaialdian eta Bulgariako Bankya Jaialdian.

Irakurzaletasuna sustatzeko eta haur-literatura sustatzeko ekintzaile gisa, Vagelisek artikuluak idatzi, hitzaldiak eman eta askotariko irakurketa-proiektuak eta kanpainak antolatzen ditu ikastetxe eta liburutegietan. Era berean, idazketa sortzaileko irakaslea da. Haurren eta Nerabeen Osasun Psikosozialerako Greziako Elkarteak «Eskoletako osasun mentalaren mezulari» izendatu du. Hans Christian Andersen Sarirako izendatu du IBBYren Greziako Sailak, eta Astrid Lindgren Memorial Award-erako (ALMA) IBBYren Zipreko Sailak. Greziako haur-liburuaren enbaxadore izendatu du IBBY Greziak.